

## Podemos Euskadik Guardianen itxiera eta kaleratzeak deitoratu ditu, eta EAJk, PSEk eta PPk EBn sustatutako politika neoliberaleri egotzi die errua

**2025/04/07.** Podemos Euskadiren ustez, albiste oso txarra da Guardian enpresa Laudion sei hilabetean erabat ixtea eta 171 langile kaleratzea.

“Langileek enplegu-erregulazioko espedientea onartzeko hartutako erabaki zaila errespetatzen dugu, baina Guardian multinazional amerikarrak edo Eusko Jaurlaritzak berak proposamen eta plan industrialik egin ez izanak ez die beste aukerarik utzi. Borroka honen amaierarik txarrena da”, adierazi du Richar Vaquero Podemos Euskadiko koordinatzaile nagusiak.

Guardianen itxiera sindikatuek beraiek aspaldi aurreratu zuten, gogorarazi duenez. Guardianek Glavistako langileak kaleratu zituenean enpresa Suitzako Partner Capital funtsari saltzeko, Guardianen amaiera hasi zen.

Itxiera beste kolpe gogor bat da Aiaraldearentzat, azken urteetan “industria desegite kezkarria” jasaten ari baita. “Guardian da Glavistaren edo Mecerren atzetik erortzen azkena Urdulizen, eta Aiaraldea desindustrializatzen eta pobretzen ari da, ziztu bizian”, ohartarazi du Vaquerok.

Xabier Marrero Podemos Euskadiko Larrialdi Klimatikoko eta Eredu Industrialeko idazkariak ziurtatu du Guardianen itxiera ehun eta enplegu industrialaren galeraren beste adibide bat dela, eta hori ez dela ezer berria Euskadin. “Gure enpresak atzerriko kapitalaren bidez ixten edo eskuratzen ari dira, eta horrek epe laburreko irabaziak lehenesten ditu, sustraitzea lehenetsi beharrean”, gaitzetsi du.

EAJren, PSEren edo PPren kezka, baita Europako eskuin eta sozialdemokraziarena ere, Trumpen mugazergen gerrari dagokionez, Podemos Euskadiren kezka bera da. “Hala ere, Euskadiko industria-desegiteak urteak daramatza martxan, eta ez da Trumpen errua, baizik eta EAJk, PPk eta PSEk Europar Batasunean ia erregulaziorik gabe sustatutako merkatu libreko politikena. Izan ere, gure enpresak ezin dira lehiatu soldata baxuko herrialdeekin eta ingurumen araurik ez duten herrialdeekin, eta gure enpresa sarea inbertsio funtsak eros dezakete, denbora gutxian saltzen baitituzte. Ildo horretan, beti defendatu ditugu ispilu-klausulak merkataritza itunetan eta gobernuek enpresa estrategikoetan partaidetza garrantzitsuak eskuratzea, gure industria babesteko, baina baita gure lehen sektorea ere, ezin baita Mercosurrekin lehiatu”, gaineratu du Marrerok.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak “gure industria bermatzea eta babestea, baina ez da hala egiten ari politika neoliberalak eta merkatu librekoak sustatzen dituenean, horiek benetako alfonbra gorria baitira, atzerriko korporazio eta inbertsio funts handiek negozio azkarra egin dezaten eta gure industriarekin monopoliara joka dezaten”, adierazi du Vaquerok.

Podemos Euskadik defendatzen du Eusko Jaurlaritzak Euskadiko enpresa estrategikoen akzioak inbertitu eta eskuratu behar dituela industria-galeraren koska gelditzeko. “Eusko Legebiltzarrean, 2021eko, 2022ko eta 2023ko aurrekontuetan, Podemosek proposatu zuen Euskal Funts Subirano bat sortzea, urtean 500 milioi eurokoa, enpresa estrategikoen, startupen edo arriskuan dauden enpresen akziodun izateko, lehiakorragoak

izateko eta industria lurraldera errotzeko. Ez ziguten inoiz kasurik egin, baina orain Imanol Pradales lehendakariak gauza bera eskatzen du bere Finantza Aliantzarekin. Okerrrena da Guardian eta bere 171 langileentzat berandu datozela dirudiela”, bukatu du Richar Vaquerok.